d) Lizitatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: kontratua esleitzen den arte.

e) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: administrazio klausulen agirian adierazitakoak, zeinak agirian jasotako eskaintza ereduaren arabera egin behar diren.

10.- Eskaintzak irekitzea:

a) Azalpena: kontratazio mahaiaren deialdia

b) Helbidea: Gaztelu plaza, 1

c) Herria eta posta kodea: Bernedo (01118)

d) Eguna eta ordua: eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta ondorengo egun baliodunean, 13:00etan, osoko bilkuren aretoan.

e) Adituen batzordea: beren izendapena web orrian argitaratuko da.

11.- Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

Bernedo, 2013ko apirilaren 8a.– Alkatea, JUANA VELASCO ARRONIZ.

d) Plazo durante el cual el licitador estará obligado a mantener su oferta: Hasta adjudicación del contrato.

e) Documentación a presentar: la que figura en el pliego de cláusulas administrativa y con el modelo de proposición previsto en el pliego.

10.- Apertura de ofertas:

a) Descripción: Convocatoria de mesa de contratación

b) Dirección: Plaza del Castillo, 1

c) Localidad y código postal: Bernedo (01118)

d) Fecha y hora: El día siguiente hábil tras la finalización del plazo de ofertas, a las 13:00 horas en el salón de plenos.

e) Comité de Expertos: Su designación se publicará en la página web.

11.- Gastos de Publicidad: A costa del adjudicatario

En Bernedo a 8 de abril de 2013.– La alcaldesa, JUANA VELASCO ARRONIZ.

## KANPEZU

**1952**

**Landa eta hiri ondasun higiezinen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2013ko erroldak jendaurrean jartzea.**

Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 21.2 artikuluan xedatutakoa betez, landa eta hiri ondasun higiezinen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2013ko erroldak 15 egun baliodunez egongo dira jendaurrean udaletxeko idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdun orok aztertu eta egoki iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik ez bada, behin betiko onartuko dira.

Santikurutze Kanpezu, 2013ko apirilaren 10a.– Alkatea, ESTEBAN GARCÍA CAMPIJO.

## CAMPEZO

**1952**

**Exposición Padrones IBI Rústica y Urbana 2013.**

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 21.2 de la Norma Foral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, quedan expuestos al público en la Secretaría Municipal, durante el plazo de 15 días hábiles, contados a partir del siguiente, también hábil al de la publicación del presente anuncio en el BOTHA, los Padrones del Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Rústica y Urbana, correspondiente al ejercicio 2013, a los efectos de que durante dicho plazo, puedan ser examinados y presentarse las reclamaciones que se consideren oportunas.

Si no hubiera reclamaciones, se considerarán aprobados definitivamente.

En Santa Cruz de Campezo, a 10 de abril de 2013.– El alcalde, ESTEBAN GARCÍA CAMPIJO.

## IRUÑA OKA

**1888**

**Kontribuzio bereziak arautzen dituen ordenantza orokorraren behin betiko onarpena.**

Ez da erreklamaziorik aurkeztu obrak egitearen edo udal zerbitzuak jarri edo handitzearen ondoriozko kontribuzio berezien ordenantza orokorraren hasierako onarpenaren aurka; hain zuzen ere, subjektu pasiboari onurak edo ondasunen balioa gehitzea dakarkioten obrak egiteko edo udal zerbitzuak jarri edo handitzeko kontribuzio bereziak arautzen dituen ordenantza orokorraren hasierako onarpenaren aurka, zeina 2013ko otsailaren 11ko ALHAOn -18. zk.- argitaratu baitzen. Horiek horrela, behin betiko onartu da, eta osorik argitaratuko da ondoren haren testua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

**Kontribuzio bereziak arautzen dituen ordenantza orokorra**

I. Xedapen orokorrak

**1. artikulua**

Iruña Okako udal honek, Toki Ogasunak arautzen dituen Arabako Lurralde Historikoaren uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 28. eta 55. artikuluetan xedatutakoaren arabera, ordenantza orokorra onartu du, obrak egitearen edo udal zerbitzuak jarri edo handitzearen ondoriozko kontribuzio bereziena, lan horiek subjektu pasiboari onurak edo ondasunen balioa gehitzea badakarkiote.

**2. artikulua**

Ordenantza hau Iruña Okako udalerri osoan aplikatuko da.

## IRUÑA DE OCA

**1888**

**Aprobación definitiva ordenanza general de contribuciones especiales.**

No habiéndose presentado reclamaciones contra la aprobación inicial de la Ordenanza General de contribuciones especiales para la realización de obras o por el establecimiento o ampliación de servicios municipales, que generen en los sujetos pasivos un beneficio o un aumento del valor de sus bienes, publicada en el BOTHA número 18, de 11 de febrero de 2013, la misma queda aprobada definitivamente, publicándose a continuación el texto íntegro de la misma, a los efectos previstos en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de Abril Reguladora de las Bases de Régimen Local:

**Ordenanza general de contribuciones especiales**

I. Disposiciones generales

**Artículo 1º**

Este ayuntamiento de Iruña de Oca, de acuerdo con lo previsto en los artículos 28 y 55 de la Norma Foral 41/89, de 19 de julio, del Territorio Histórico de Álava, reguladora de las Haciendas Locales, aprueba la Ordenanza General de contribuciones especiales para la realización de obras o por el establecimiento o ampliación de servicios municipales, que generen en los sujetos pasivos un beneficio o un aumento del valor de sus bienes.

**Artículo 2º**

La presente ordenanza se aplica en todo el término municipal de Iruña de Oca.

II. Zerga gaia

**3. artikulua**

Kontribuzio berezien zerga gaia da subjektu pasiboak onurak lortzea edo haren ondasunen balioa gehitzea, udalak obra publikoak egitearen edo zerbitzu publikoak jarri edo handitzearen ondorioz.

**4. artikulua**

1. Hauek izango dira udal obra eta zerbitzuak:

a) Iruña Okako Udalak, berari dagozkion helburuak betetzeko eta bere eskumenen barruan, egiten dituenak, haietatik kanpo geratzen direlarik udalak bere ondare ondasunen jabe modura egiten dituenak.

b) Iruña Okako Udalak, beste erakunde publiko batzuek emandako eskumenak direla eta, egiten dituenak, eta, legeriarekin bat etorrita, titularitatea lortu ondoren egiten dituenak.

c) Beste erakunde publiko batzuk egiten dituztenak (edo horien emakidadunak), baldin eta udalaren ekarpen ekonomikorik badute.

2. Aurreko zenbakian adierazitako a) letran jasotakoek ez dute galtzen udal obra edo zerbitzuen izaera, nahiz eta hauek eginak izan: kapital osoa Iruña Okako Udalarena duten erakunde autonomoek edo merkataritza sozietateek, emakidadunek udal ekarpenekin, edo zergadunen administrazio elkarteek.

**5. artikulua**

Kontribuzio bereziengatik bildutako diru kopuruak bakarrik erabil daitezke kobratzearen zio izan diren obra eta zerbitzuen gastuak ordaintzeko.

III. SUBJEKTU PASIBOA

**6. artikulua**

1. Kontribuzio berezien subjektu pasibo izango dira pertsona fisikoak zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako erakundeak, zerga ordaindu beharra sortzen duten obretatik edo udal zerbitzuak jarri eta handitzetik onura berezia ateratzen badute.

2. Hona hemen pertsona bereziki onuradunak:

a) Ondasun higiezinei eragiten dieten obrak egiteagatik edo zerbitzuak jarri edo handitzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, haien jabeak.

b) Enpresa ustiaketekin lotutako obrak egiteagatik edo zerbitzuak jarri edo handitzeagatik, haien titularrak diren pertsonak edo erakundeak.

c) Suteak itzaltzeko zerbitzuak handitu edo hobetzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, eragindako ondasunen jabeez gain beren jarduerak udalerriko arlo horretan egiten dituzten aseguru etxeak.

d) Lurpean galeriak eraikitzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, galeria horiek erabiliko dituzten enpresa eraikitzaileak.

3. Jabetza horizontaleko erregimena duten kasuetan, jabeen erkidegoaren ordezkariak jabekideen izenak eta erkidegoan duten partaidetzaren ehunekoa jakinaraziko dizkio udal administrazioari, banakako kuotak igortzeko.

Horrela egin ezean, kuota bakarra igortzea onartzen dutela ulertuko da, eta erkidegoa bera arduratuko dela hori banatzeaz.

IV. Zerga oinarria

**7. artikulua**

1. Kontribuzio berezien zerga oinarria, gehienez, udalerriak obrak egiteko edo zerbitzuak jarri edo handitzeko jarriko duen diruaren ehuneko 90. Udalak, agintzeko erabakia hartzerakoan, kasu bakoitzari dagokion ehunekoa ezarriko du.

2. Kostua honako kontzeptuetan dago banaturik:

a) Peritu lanen, proiektu idazte zein zuzendaritza lanen, planen eta programa teknikoen kostu erreala.

b) Egin beharreko obren zenbatekoa, baita zerbitzuak jarri edo handitzeko lanena ere.

II. Hecho imponible

**Artículo 3º**

Constituye el hecho imponible de las contribuciones especiales la obtención por el sujeto pasivo de un beneficio o de un aumento de valor de sus bienes como consecuencia de la realización de obras públicas o del establecimiento o ampliación de servicios públicos municipales por el Ayuntamiento.

**Artículo 4º**

1. Tendrán la consideración de obras y servicios municipales:

a) Los que realice el ayuntamiento de Iruña de Oca dentro del ámbito de sus competencias para cumplir los fines que le estén atribuidos, excepción hecha de los que ejecuten a título de dueños de sus bienes patrimoniales.

b) Los que realice el ayuntamiento de Iruña de Oca por haberle sido atribuidos o delegados por otras entidades públicas y aquéllos cuya titularidad haya asumido de acuerdo con la legislación.

c) Los que realicen otras entidades públicas, o los concesionarios de las mismas, con aportación económica municipal.

2. No perderán la consideración de obras o servicios municipales los comprendidos en la letra a) del número anterior, aunque sean realizados por Organismos Autónomos o Sociedades Mercantiles cuyo capital social pertenezca íntegramente al ayuntamiento de Iruña de Oca, por concesionarios con aportación municipal o por asociaciones administrativas de contribuyentes.

**Artículo 5º**

Las cantidades recaudadas por contribuciones especiales sólo podrán destinarse a sufragar los gastos de la obra o del servicio por cuya razón se hubiesen exigido.

III. SUJETO PASIVO

**Artículo 6º**

1. Son sujetos pasivos de las contribuciones especiales las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Álava, especialmente beneficiadas por la realización de las obras o por el establecimiento o ampliación de los servicios municipales que originen la obligación de contribuir.

2. Se considerarán personas especialmente beneficiadas:

a) En las contribuciones especiales por realización de obras o por el establecimiento o ampliación de servicios que afecten a bienes inmuebles, los propietarios de los mismos.

b) En las contribuciones especiales por realización de obras o establecimientos o ampliación de servicios a consecuencia de explotaciones empresariales, las personas o entidades titulares de éstas.

c) En las contribuciones especiales por la ampliación o mejora de los servicios de extinción de incendios, además de los propietarios de los bienes afectados, las compañías de seguros que desarrollen su actividad en el ramo, dentro del término municipal.

d) En las contribuciones especiales por construcción de galerías subterráneas, las empresas constructoras que deban utilizarlas.

3. En los casos de régimen de propiedad horizontal, la representación de la comunidad de propietarios facilitará a la administración municipal el nombre de los copropietarios y su coeficiente de participación en la comunidad a fin de proceder al giro de cuotas individuales.

De no hacerse así se entenderá aceptado el que se gire una única cuota de cuya distribución se ocupará la propia comunidad.

IV. Base imponible

**Artículo 7º**

1. La base imponible de las contribuciones especiales está constituida, como máximo, por el 90 por ciento del coste que el municipio soporte por la realización de las obras o por el establecimiento o ampliación de los servicios. El ayuntamiento, al adoptar el acuerdo de ordenación, fijará, en cada caso, el porcentaje aplicable.

2. El referido coste estará integrado por los siguientes conceptos:

a) El coste real de los trabajos periciales, de redacción de proyectos y de dirección de obras, planes y programas técnicos.

b) El importe de las obras a realizar o de los trabajos de establecimiento o ampliación de los servicios.

c) Obra edo zerbitzuek hartu behar dituzten lurzoruen balioa, salbu eta erabilera publikoko ondasunak badira, udalari doan eta nahitaez lagatako lurzoruak badira edo legeen arabera lagatako higiezinak badira.

d) Eraikinak eraisteak, edo landaketa, obra edo instalazioak suntsitzeak eragindako kalte-ordainak, baita eraitsi edo okupatu beharreko ondasunen maizterrei ematen zaizkienak ere.

e) Obra edo zerbitzuetan inbertitu den kapitalaren interesa, udalak kontribuzio berezien bidez ordaindu ezin den zatia finantzatzeko kredituritk eskatu behar badu, edo kontribuzioen bidez ordaindutakoa finantzatzeko haiek oro har zatikatzen badira.

3. Obra edo zerbitzuen aurrekontuan agertzen den kostu osoa aurreikuspen bat baino ez da izango.

Kostu erreala aurreikusitakoa baino handiagoa edo txikiagoa bada, horixe erabiliko da dagozkion kuotak kalkulatzeko.

4. Ordenantza honetako 4.1. c) artikuluan aipatutako obra edo zerbitzuen kasuan, edo udalerriaren ekarpenak dituzten emakidadunek –artikulu bereko 2 paragrafoan aipatuak– egindakoak badira, kontribuzio berezien zerga oinarria ekarpen horien zenbatekoaren arabera kalkulatuko da; hala ere, beste administrazio publiko batzuek ere ezar ditzakete zerga, obra edo zerbitzu berarengatik. Edonola ere, artikulu honetako lehen zenbakian aipatu den % 90eko mugari eutsiko zaio.

5. Zerga oinarria zehazte aldera, udal administrazioak jasandako kostua kalkulatzeko, udal administrazio horrek jasotzen duen dirulaguntzen edo laguntzen zenbatekoa kenduko zaio kostu osoaren zenbatekoari.

6. Kontribuzio bereziaren subjektu pasiboak ematen badu dirulaguntza edo laguntza hori, berorren zenbatekoa pertsona edo erakunde horren kuota konpentsatzeko erabiliko da lehengo eta behin. Dirulaguntza edo laguntzaren zenbatekoa kuota hori baino handiagoa bada, gaindikina gainerako subjektu pasiboen kuotak gutxitzeko erabiliko da, hainbanaketaren bidez.

V. Kuota

**8. artikulua**

Kontribuzio berezien zerga oinarria subjektu pasiboen artean banatuko da, obra eta zerbitzuen mota eta izaera kontuan hartuz eta arau hauei jarraituz:

a) Oro har, hauek aplikatuko dira, denak batera edo banaka eta ondasun higiezinen gaineko zergaren ondorioetarako, banaketa modulu gisa: higiezinen fatxadako metro linealak, azalera, bolumen eraikigarria eta katastroko balioa.

b) Suteak itzaltzeko zerbitzua jartzea, handitzea edo hobetzea denean, udalerrian dauden eta ondasunen arriskua estaltzen duten erakundeen edo sozietateen artean banatu ahal izango da zenbatekoa, aurreko urtean jaso diren primen zenbatekoen arabera.

Subjektu pasibo bakoitzari eska dakiokeen kuota berak bildutako primen ehuneko 5 baino gehiagokoa bada, gaindikina hurrengo ekitaldietara igaroko da, guztia amortizatu arte.

c) Ordenantza honetako 6. artikuluaren bigarren zenbakiko d) idatz-zatian aipatutako obren kasuan, haiek erabiliko dituzten konpainia edo enpresen artean banatuko da kontribuzio bereziaren zenbateko osoa, bakoitzari gordetako espazioaren arabera edo obren sekzio osoarekiko proportzioan, berehala erabiltzen ez badute ere.

**9. artikulua**

Aplikatzekoa den arautegiak edo nazioarteko itunek zerga onurak ematen badituzte, onuradunei dagozkien kuotak ez dira banatuko gainerako zergadunen artean.

**10. artikulua**

Ordaindu beharreko kuota ezarri ondoren, korporazioak eskain dezake, subjektu pasiboak hala eskatzen badu, kuota zatikatzeko edo beranduago ordaintzeko aukera, baina gehienez ere bost urteren buruan ordaindu beharko du.

c) El valor de los terrenos que hubieren de ocupar permanentemente las obras o servicios, salvo que se trate de bienes de uso público, de terrenos cedidos gratuita y obligadamente al ayuntamiento, o del de los inmuebles cedidos en los términos establecidos en la legislación.

d) Las indemnizaciones procedentes por el derribo de construcciones, destrucción de plantaciones, obras o instalaciones, así como las que procedan, a los arrendatarios de los bienes que hayan de ser derruidos u ocupados.

e) El interés del capital invertido en las obras o servicios cuando el ayuntamiento hubiere de apelar al crédito para financiar la porción no cubierta por contribuciones especiales o la cubierta por éstas en caso de fraccionamiento general de las mismas.

3. El coste total presupuestado de las obras o servicios, tendrá carácter de mera previsión.

Si el coste real fuese mayor o menor del previsto, se tomará aquél a efectos del cálculo de las cuotas correspondientes.

4. Cuando se trate de obras o servicios, a que se refiere el artículo 4.1.c), o de las realizadas por concesionarios con aportación municipal a que se refiere el número 2 del mismo artículo, la base imponible de las contribuciones especiales se determinará en función del importe de estas aportaciones, sin perjuicio de las que puedan imponer otras administraciones públicas por razón de la misma obra o servicio. En todo caso, se respetará el límite del 90 por ciento a que se refiere el número primero de este artículo.

5. A los efectos de determinar la base imponible, se entenderá por coste soportado por la administración municipal la cuantía resultante de restar a la cifra del coste total el importe de las subvenciones o auxilios que la administración municipal obtenga.

6. Si la subvención o el auxilio citados se otorgasen por un sujeto pasivo de la contribución especial, su importe se destinará primeramente a compensar la cuota de la respectiva persona o entidad. Si el valor de la subvención o auxilio excediera de dicha cuota, el exceso reducirá, a prorrata, las cuotas de los demás sujetos pasivos.

V. Cuota

**Artículo 8º**

La base imponible de las contribuciones especiales se repartirá entre los sujetos pasivos, teniendo en cuenta la clase de naturaleza de las obras y servicios, con sujeción de las siguientes reglas:

a) Con carácter general se aplicarán conjunta o separadamente, con módulos de reparto, los metros lineales de fachada de los inmuebles, su superficie, el volumen edificable de los mismos y el valor catastral a efectos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

b) Si se trata del establecimiento, ampliación o mejora del servicio de extinción de incendios, la distribución podrá llevarse a cabo entre las entidades o sociedades que cubran el riesgo de bienes sitos en el término municipal proporcionalmente al importe de las primas recaudadas en el año inmediatamente anterior.

Si la cuota exigible a cada sujeto pasivo Aprobación: fuera superior al 5 por ciento del importe de las primas reanudadas por el mismo, el exceso se trasladará a los ejercicios sucesivos hasta su total amortización.

c) En el caso de las obras a que se refiere el apartado d) del número segundo, del artículo 6 de la presente ordenanza, el importe total de la contribución especial será distribuido entre las compañías o empresas que hayan de utilizarlas en razón al espacio reservado a cada una o en proporción a la total sección de las mismas, aún cuando no las usen inmediatamente.

**Artículo 9º**

En el supuesto de que la normativa aplicable o Tratados Internacionales concedan beneficios fiscales, las cuotas que puedan corresponder a los beneficiarios no serán distribuidas entre los demás contribuyentes.

**Artículo 10º**

Una vez determinada la cuota a satisfacer, la corporación podrá conceder, a solicitud del sujeto pasivo, el fraccionamiento o aplazamiento de aquélla por un plazo máximo de cinco años.

VI. Tributua ordaindu beharra

**11. artikulua**

1. Kontribuzio bereziak obrak burututakoan edo zerbitzua ematen hasitakoan sortuko dira. Obrak zatikatzerik badago, obraren zati bakoitza burututakoan ordaindu beharko du subjektu pasibo bakoitzak.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, kontribuzioa ezarri eta agintzeko erabaki zehatza onartutakoan, Iruña Okako Udalak eska dezake kontribuzio bereziak aldez aurretik ordaintzea, hurrengo urterako aurreikusi den kostuaren zenbatekoaren arabera. Obrak egiteko aurrerakina eskatzen bada, obra horiek amaitu arte ezin izango da beste urtebeteko aurrerakinik eskatu.

3. Ordenantza honetako 6. artikuluan ezarritakoari jarraituz ordaintzera behartuta dagoen pertsona zein den zehazteko, kontribuzio bereziak sortu diren unea hartuko da aintzat, nahiz eta agintzeko erabaki zehatzean subjektu pasibotzat ageri dena hura onartu zen egunaren erreferentziaz dagokiona izan eta hark kuoten ordainketa aurreratuta eduki, artikulu honetako bigarren zenbakian ezarritakoaren arabera. Agintzeko erabaki zehatzean subjektu pasibo gisa ageri den pertsonak, horren jakinarazpena jasota, kontribuzioa ezartzea eragin duten ondasun edo ustiaketen gaineko eskubideak eskualdatzen baditu, eta hori erabakia hartzen denetik zorra sortu arteko aldian gertatzen bada, udal administrazioari eman beharko dio egindako eskualdaketaren berri, eskualdaketa egin eta hilabeteko epean; hori egin ezean, administrazio horrek espedientean subjektu pasibo gisa ageri zenaren aurka jo dezake.

4. Obrak guztiz edo zati batez burutu ondoren, edo zerbitzua ematen hasi ondoren, behin betiko zehaztuko da zein diren subjektu pasiboak, oinarria eta banakako behin betiko kuotak, dagozkion likidazioak egingo dira eta konturako entrega gisa konpentsatuko dira aldez aurretik egindako ordainketak. Udal administrazioak egingo du behin betiko zehaztapena, kasuan kasuko obra edo zerbitzurako tributua agintzeko erabaki zehatzaren arauek ezartzen dutenera egokituz.

5. Aldez aurreko ordainketak zergaren sortzapen egunean subjektu pasiboaren izaera ez duen batek egin baditu, edo dagokien banakako kuotatik gorakoak badira, udal administrazioak ofizioz egingo dio dagokion itzulketa.

VII. Kontribuzioa ezartzea eta agintzea

**12. artikulua**

1. Kontribuzio bereziak ordainarazteko, aldez aurretik kasu bakoitzerako ezarpen erabakia hartu beharko da.

2. Kontribuzio berezien bidez ordaintzekoa den obra bat egiteko, edo zerbitzu bat jartzeko edo handitzeko erabakia ezin izango da gauzatu kontribuzioen agindua onartu arte.

3. Aginduaren erabakia nahitaezkoa izango da; bertan, obra eta zerbitzuetarako aurreikusten den kostua, onuradunen artean banatu beharreko zenbatekoa eta banatzeko irizpideak zehaztuko dira. Agintzeko erabakia ordenantza honen araberakoa izango da.

4. Kontribuzio bereziak agintzeko erabaki zehatza hartu eta ordaindu beharreko kuotak zehaztu ondoren, banan-banan jakinaraziko zaizkie subjektu pasiboei, haiek edo haien helbidea ezagunak badira, edo, bestela, ediktu bidez. Interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Iruña Okako Udalean, honako gai hauen gainean: kontribuzio berezien egokitasuna, bereziki onuradun direnek kostuetatik ordaindu beharreko ehunekoa, edo dagozkien kuotak.

**13. artikulua**

1. Iruña Okako Udalak bere eskumeneko obrak eta zerbitzuak beste toki erakunde baten laguntza ekonomikoarekin egin edo ematen

VI. Devengo del tributo

**Artículo 11º**

1. Las contribuciones especiales se devengan en el momento en que las obras se hayan ejecutado o el servicio haya comenzado a prestarse. Si las obras fueran fraccionables, el devengo se producirá para cada uno de los sujetos pasivos desde que se hayan ejecutado las correspondientes a cada tramo o fracción de la obra.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el número anterior, una vez aprobado el acuerdo concreto de imposición y ordenación, el ayuntamiento de Iruña de Oca podrá exigir por anticipado el pago de las contribuciones especiales en función del importe del coste previsto para el año siguiente. No podrá exigirse el anticipo de una nueva anualidad sin que hayan sido ejecutadas las obras para las cuales se exigió el correspondiente.

3. El momento del devengo de las contribuciones especiales se tendrá en cuenta a los efectos de determinar la persona obligada al pago de conformidad con lo dispuesto en el artículo 6, aún cuando en el acuerdo concreto de ordenación figure como sujeto pasivo quien lo sea con referencia a la fecha de su aprobación y de que él mismo hubiere anticipado el pago de cuotas, de conformidad a lo dispuesto en el número segundo del presente artículo. Cuando la persona que figure como sujeto pasivo en el acuerdo concreto de ordenación haya sido notificada de ello, transmita los derechos sobre los bienes o explotaciones que motivan la imposición en el período comprendido entre la aprobación de dicho acuerdo y el del nacimiento del devengo, estará obligada a dar cuenta a la administración municipal de la transmisión efectuada, dentro del plazo de un mes desde la fecha de ésta, y, si no lo hiciera, dicha Administración podrá dirigir la acción para el cobro, contra quien figuraba como sujeto pasivo en el expediente.

4. Una vez finalizada la realización total o parcial de la obras, o iniciada la prestación del servicio, se procederá a señalar los sujetos pasivos, la base y las cuotas individualizadas definitivas, girando las liquidaciones que procedan y compensando como entrega a cuenta los pagos anticipados que se hubieren efectuado. Tal señalamiento definitivo se realizará por la administración municipal ajustándose a las normas del acuerdo concreto de ordenación del tributo para la obra o servicio de que se trate.

5. Si los pagos anticipados hubieran sido efectuados por personas que no tienen la condición de sujetos pasivos en la fecha del devengo del tributo o bien excedieran de la cuota individual definitiva que les corresponda, la Administración Municipal practicará de oficio la pertinente devolución.

VII. Imposición y ordenación

**Artículo 12º**

1. La exacción de las contribuciones especiales precisará de la previa adopción del acuerdo de imposición en cada caso concreto.

2. El acuerdo relativo a la realización de una obra o al establecimiento o ampliación de un servicio que deba costearse mediante contribuciones especiales no podrá ejecutarse hasta que se haya aprobado la ordenación concreta de éstas.

3. El acuerdo de ordenación será de inexcusable adopción y contendrá la determinación del coste previsto de las obras y servicios, de la cantidad a repartir entre los beneficiarios y de los criterios de reparto. El acuerdo de ordenación concreto se remitirá a la presente Ordenanza.

4. Una vez adoptado el acuerdo concreto de ordenación de contribuciones especiales y determinadas las cuotas a satisfacer, éstas serán notificadas individualmente a cada sujeto pasivo si éste o su domicilio fueren conocidos, y, en su defecto, por edicto. Los interesados podrán formular recurso de reposición ante el ayuntamiento de Iruña de Oca, que podrá versar sobre la procedencia de las contribuciones especiales, el porcentaje del coste que deban satisfacer las personas especialmente beneficiadas o las cuotas asignadas.

**Artículo 13º**

1. Cuando las obras y servicios de competencia municipal sean realizados o prestados por el ayuntamiento de Iruña de Oca con la cola-

baditu, betiere kontribuzio bereziak foru araudian jasotakoarekin bat etorriz ezarrita, obrak egitea edo zerbitzuak jartzea bere gain hartu duen erakundeak kudeatu eta bilduko ditu kontribuzio horiek; hala ere, erakunde bakoitzak berari dagokion eskumena mantenduko du, kontribuzioa ezartzeko eta agintzeko erabakiei dagokienez.

2. Erakunde horietakoren batek agintzeko erabaki zehatza onartzen ez badu, batera jardutea bertan behera geratuko da, eta bakoitzak bere aldetik hartuko ditu dagozkion erabakiak.

VIII. Herritarren lankidetza

**14. artikulua**

1. Obrek eragindako jabeek edo titularrek zergadunen administrazio elkarte bat osa dezakete, eta obrak egiteko edo udal zerbitzuak jartzeko eta handitzeko eskatu. Bestalde, Iruña Okako Udalak jarri beharreko zatia ordaintzeko konpromisoa hartu beharko dute, udalaren egoera ekonomikoa dela-eta berak ordaindu ezin badu, obra edo zerbitzuaren izaerarengatik dagokienaz gain.

2. Halaber, Iruña Okako Udalak sustatutako obrak egiteak edo zerbitzuak jarri edo handitzeak eragindako jabe edo titularrek zergadunen administrazio elkarte bat era dezakete kontribuzio bereziak agintzeko erabakia jendaurrean dagoen aldian.

**15. artikulua**

Aurreko artikuluan aipatutako zergadunen administrazio elkarteak eratzeko, eragindakoen gehiengo osoak hartu beharko du erabakia, betiere ordaindu beharreko kuoten gutxienez bi heren ordezkatuz.

Iruña Oka, 2013ko apirilaren 8a.– Alkate-lehendakaria, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.

## IRUÑA OKA

**1904**

**Onarpena ematea Iruña Okako Udaleko lurzatien lurzoru besterentzearen oinarriei.**

Udal korporazioak, 2013ko martxoaren 7an egindako osoko bilkuran, onarpena eman zien Iruña Okako Udalaren titulartasunekoak diren lurzatien lurzorua lurzoru horren azaleraren titularrei zuzenean eta kostu bidez besterentzea arautuko duten oinarriei. Lurzati horiek azalera eskubidean laga ziren, babes ofizialeko etxebizitza bat eraikitzeko (Langraiz Okako SAU-N4 sektorea)

Iruña Okako Udaleko bulego orokorretan eta udalaren web orrian egongo dira eskuragarri oinarri horiek interesdunentzat, kontsulta ditzaten.

Guztiek jakin dezaten jakinarazten dut.

Iruña Oka, 2013ko apirilaren 8a.– Alkate-lehendakaria, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.

## BASTIDA

**1702**

**Behin betiko onarpena, udal ludotekaren funtzionamendua eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzena.**

Bastidako Udalbatzak, 2013ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, behin-behineko onarpena eman zien udal ludotekaren prezio publikoak eta funtzionamendua arautzen dituzten ordenantzei. 2013ko otsailaren 20ko ALHAOn (22. zenbakia) argitaratutako iragarkiaren bidez udal ludotekaren prezio publikoak eta funtzionamendua arautzen dituzten ordenantzak jendaurrean jarri ziren.

boración económica de otra entidad local, y siempre que se impongan contribuciones especiales con arreglo a lo dispuesto en la normativa foral, la gestión y recaudación de las mismas se hará por la entidad que tome a su cargo la realización de las obras o el establecimiento del servicio, sin que ello obste para que cada entidad conserve su competencia respectiva en orden a los acuerdos de imposición y de ordenación.

2. En el supuesto de que el acuerdo concreto de ordenación no fuera aprobado por una de dichas entidades, quedará sin efecto la unidad de actuación adoptando separadamente cada una de ellas las decisiones que procedan.

VIII. Colaboración ciudadana

**Artículo 14º**

1. Los propietarios o titulares afectados por las obras podrán constituirse en asociación administrativa de contribuyentes y promover la realización de obras o el establecimiento o ampliación de servicios municipales, comprometiéndose a sufragar la parte que corresponde aportar al ayuntamiento de Iruña de Oca cuando la situación financiera de éste no lo permitiera, además de la que les corresponda según la naturaleza de la obra o servicio.

2. Asimismo, los propietarios o titulares afectados por la realización de las obras o el establecimiento o ampliación de servicios promovidos por el ayuntamiento de Iruña de Oca podrán constituirse en asociaciones administrativas de contribuyentes en el período de exposición al público del acuerdo de ordenación de las contribuciones especiales.

**Artículo 15º**

Para la constitución de las asociaciones administrativas de contribuyentes a que se refiere el artículo anterior, el acuerdo deberá ser tomado por la mayoría absoluta de los afectados, siempre que representen, al menos, los dos tercios de las cuotas que deban satisfacerse.

En Iruña de Oca, a 8 de abril de 2013.– El alcalde-presidente, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.

## IRUÑA DE OCA

**1904**

**Aprobación bases de la enajenación de suelo de parcelas del ayuntamiento de Iruña de Oca.**

El Pleno de la Corporación Municipal, en sesión celebrada con fecha 7 de marzo de 2013 aprobó las bases que han de regir la enajenación directa y onerosa, a los titulares superficiarios de suelo de parcelas de titularidad del ayuntamiento de Iruña de Oca cedidas en derecho de superficie para la construcción de vivienda protegida (Sector SAU-N4 de Nanclares de la Oca).

Las citadas bases estarán a disposición de los interesados para su consulta en las oficinas generales del ayuntamiento de Iruña de Oca, así como en la página web municipal.

Lo que se comunica para conocimiento general

En Iruña de Oca, a 8 de abril de 2013.– El alcalde-presidente, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.

## LABASTIDA

**1702**

**Aprobación definitiva de las ordenanzas reguladoras de funcionamiento y precios públicos de la ludoteca municipal.**

El Pleno del ayuntamiento de Labastida en sesión celebrada el día 25 de enero de 2013, aprobó provisionalmente las Ordenanzas de Precio Público y Reglamento que ha de regir el funcionamiento de la ludoteca municipal. Tenido en cuenta que, por medio de anuncio publicado en el BOTHA número 22, de fecha 20 de febrero de 2013 se sometió a trámite de información pública las ordenanzas municipales reguladoras de funcionamiento y precios públicos de la ludoteca municipal.